



.eus erregistro-politika

Definizioak

Erregistro-politikak .eus domeinuaren izen-erregistroak arautzen dituzten baldintzak biltzen ditu. Erregistro-politika honetan:

- a. **«Erregistrantea», «zu» eta «zure»** .eus domeinu-izena akreditatutako erregistroan erregistratzea eskatu duen edo erregistratu nahi duen gizabanakoari edo erakundeari dagozkio.
- b. **«Erregistro-operadorea», «Gu» eta «Gure»** Puntueus fundazioari dagozkio, .eus lehen mailako domeinua zuzentzeaz arduratzen den erakunde gisa, zuzenean edo baimendutako eragilearen bidez jarduten duen kontuan izan gabe.
- c. **«ICANN»** Internet Corporation for Assigned Names and Numbers izenaren laburdura da.

1. Erregistro-politikaren onarpena

1.1 .eus domeinu-izen bat erregistratzea edo domeinu-izen bat mantentzea edo berritzea eskatzen baduzu, jarraian adierazitakoen mende egotea onartzen duzu legez:

- a. .eus lehen mailako domeinuaren erregistro-operadoreak azaldutako erregistro-politika, noizbehinkako zuzenketa arabera;
- b. .eus domeinu-izena eskatzeko erabilitako erregistro babesleak emandako erregistro-hitzarmena; eta
- c. ICANNek noizbehinka agindutako beste edozer politika.

1.2 Honen bitartez adierazten eta bermatzen diguzu, zure erregistro-hitzarmenean zure .eus domeinu-izena babesten duen erregistroarekin egindako adierazpenak osoak eta zehatzak direla.



- 1.3 Onartzen eta aitortzen duzu zuk duzula zure .eus domeinu-izenaren erregistroa eta erabilera erregistro-politika hau betetzen duela zehaztearen ardura bakarra.
- 1.4 Zure .eus domeinu-izena bat etorriko da ICANNek eta guk ezarritako sintaxi-arauekin, eta ez da guk ezarritako gordetako izenetako bat izango. Badakizu sintaxi-arauen, gordetako izenen edo erregistro politikaren aurka erregistratutako domeinu-izena diru-itzultzerik gabe baliogabetu daitekeela. Baliogabetuz gero, ez gara inola ere erantzule izango.
- 1.5 Ezin dugu bermatu nahi duzun domeinu-izena lortuko duzula, eskatzerakoan, ikerketa batek domeinu-izen hori eskuragarri dagoela adierazten badu ere.
- 1.6 Badakizu eta onartzen duzu hautatutako .eus domeinu-izenaren erregistroak ez duela immunitaterik ematen domeinu-izena erregistratzeko edo erabiltzeko kontrako arrazoiaren aurrean, beheago azaldutako 5. xedapenari jarraiki.

2. Hautagarritasun baldintzak

- 2.1 .eus komunitatearekiko lotura. .eus domeinu-izena erregistratzeko eta berritzeko, erregistratze garaian eta aurrerantzean .eus komunitatearekiko lotura duen gizabanakoa edo lege-erakundea izan behar zara.

.eus lehen mailako domeinuaren mendeko erregistroak bi baldintza hauek betetzen dituztenei mugatuta daude:

a) Euskal hizkuntza- zein kultura-komunitateko onusteko kidea izatea Interneten. Euren online komunikazioetarako euskara erabiltzen (edo erabiltzeko konpromisoa hartzen) duten, edota euskal kulturaren alderdiak online sustatzen dituzten, edota euren online komunikazioak eta zerbitzuak komunitate horri zehazki zuzendu nahi dizkieten horiek osatzen dute komunitatea.

b) Erregistrantearen ekintzek euskal hizkuntza- eta kultura-komunitatean eta erregistrantearen erregistratutako domeinu-izenaren erabilerak honelakoak izan behar dute:



- 1) oro har legezkotzat jotakoak;
- 2) euskal hizkuntza- eta kultura-komunitatearen kausarentzako eta baloreentzako onuragarriak;
- 3) erregistratutako domeinu-izenaren rolarekin eta garrantziarekin bat datozenak; eta
- 4) fede onekoak erregistratzeko garaian eta aurrerantzean.

Erregistranteek erregistratutako domeinu-izenari eman nahi dioten erabilera adierazi behar dute. Nahitako erabileraren adierazpen faltsua fede txarraren adierazpena da, eta domeinu-izena eteteko oinarria izan daiteke.

Erregistratzerako garaian eta .eus domeinu-izenaren bizitza osoan, aurretik adierazitako eremu guztiak betetzen dituzula frogatzeko gai izan behar zara. Komunitatearekiko lotura ondoko balioztapenaren mende egongo da, lehen mailako domeinuaren oinarria eratzen duten irizpide beretan oinarritutako onarpen-programa zabalaren bitartez.

2.1.1 Izen geografikoak

Euskara bertako hizkuntzatzat duten eremuetako izen geografikoak, monumentuak, ikurrak edo leku ezagunak erregistratzeko, edo lurralde horretan esanguratsua eta sinbolikoa den beste edozein izen erregistratzeko -haien aldaerak eta laburdurak barne-, beharrezkoa da PuntuEUS Fundaziokoa izatea edo haren baimena izatea.

2.1.2 Agintaritza eta zerbitzu publikoen izenak

Hauek erregistratzeko, beharrezkoa da aipaturiko agintaritza publikoetako bat izatea edo haien baimena edukitzea:

- a) Euskara bertako hizkuntzatzat duten eremuetakoak diren edo eremu horietan eskumenak dituzten maila guztietako agintaritza publikoen izenak, haien aldaerak eta laburdurak barne, baita haiek deskribatzeko erabili ohi diren bestelako izen arruntak ere.
- b) Zerbitzu publiko bati zuzenean edo zeharka loturiko izenak, euskara bertako hizkuntzatzat duten eremuetako agintaritza



publikoek zerbitzu publiko horretan berariazko ardurak dituztenean (adibidez, ordena eta segurtasun publikoa, gai publikoak eta erakunde arteko harremanak, osasun publikoa, zerga-sistema, garapen eta sustapen ekonomikoak, garraioa, hirigintza eta ingurumenaren babesa, kultura eta hezkuntza, herritarren parte-hartzea eta turismoa).

Atal honetan, "**Agintaritza publikoa**" terminoak hau adierazten du: nazioarteko, estatuko nahiz eskualdeko agintaritza publikoak, baita toki- eta udal-agintaritzak ere; barne hartzen dira, beste batzuen artean, euskara bertako hizkuntzatzat duten eremuetakoak diren edo/eta eremu horietan eskumenak dituzten agentziak, kontsortzioak, batzordeak eta bestelako administrazio-erakundeak.

2.2 "Lehena iristen dena lehenengo" araua

Erregistratzearen fase jakin batzuetan bestela ezartzen ez bada, .eus goi-mailako domeinuaren barruan domeinu-izenak erregistratzeko, "lehena iristen dena lehenengo" irizpidea erabiliko da; hots, erregistratzaileen eskaerak haiek jasotzen diren ordena kronologikoan prozesatuko dira.

2.3 Arau sintaktikoak

Zure .eus domeinu-izenak ICANNek ezarritako estandar sintaktikoak bete behar ditu.

Euskaraz eta latindar alfabetoa darabilten gainerako hizkuntzetan erabiltzen diren zenbakiak, letrak, marratxoak eta beste karaktere guztiak onartzen dira.

2.4 Izen erreserbatuak

Erregistroaren kudeatzaileak zenbait .eus domeinu-izen erregistrotik kanpo utz ditzake eta, zenbait egoeratan, utzi behar ditu.

2.4.1 ICANNen eskakizunen arabera erreserbatutako izenak

Erregistroaren kudeatzaileak ezin ditu erregistratu ICANNen domeinu-izen erreserbatuen kategorien zerrendan agertzen direnak, zenbait baldintzatan izan ezik. Baldintza horiek Erregistro Hitzarmeneko 5. xedapenean azaltzen dira. "**Erregistro Hitzarmena**": erregistroaren kudeatzaileak eta ICANNek 2013ko abenduaren 12an sinatutako kontratua da; hemen eskura daiteke:



<https://www.icann.org/resources/agreement/eus-2013-12-12-en>

2.4.2 Erregistroaren kudeatzaileak erreserbatutako izenak

Ahalmen eta eskubide hauek izango ditugu, geure nahierara erabiltzeko:

- a) Domeinu-izen jakin batzuk erregistra daitezela eragozteko ahalmena, edo baldintza jakin batzuetan bakarrik erregistratzea baimentzeko ahalmena;
- b) Aipaturiko domeinu-izenak noiz eta zer egoeratan erregistra daitezkeen eta/edo nola erabil daitezkeen zehazteko eskubidea.
- c) Erreserbatutako terminoen zerrenda argitaratzeko edo ez argitaratzeko eskubidea.

3. Zure .eus domeinu-izenaren erabilera

Zuk, erregistranteak, jarraian adierazitakoa onartzen duzu:

- a. Erregistratutako .eus domeinu izenaren erregistroaren eta erabileraren erantzukizun osoa duzu. Beste pertsona bati zure .eus domeinu-izena erabiltzen uzten badiozu, zure domeinu-izena oker erabiltzeagatik erantzule izan zaitezke (hau da, zuk erregistratutako domeinu-izena), hirugarrengoren aurrean.
- b. .eus domeinu-izena erabiltzeko modua honelakoa izango da:
 - i. orokorrean legezkoa jotakoa;
 - ii. euskal hizkuntza- eta kultura-komunitatearen kausarentzako eta baloreentzako onuragarria;
 - iii. erregistratutako domeinu-izenaren eginkizunarekin eta garrantziarekin bat, erabiltzaile orokorraren zentzuzko iritziaren arabera, domeinu-izen horren eremuan; eta
 - iv. fede onekoa erregistratzeko garaian eta aurrerantzean.

Baldintza horiek betetzen ez dituzten izenak honako hauek izango lirateke, besteak beste, erregistro operadorearen nahierara:



- * Jendea engainatzen dutenak; adibidez, adierazitako toki geografikoaren edo euren jatorriaren izaera ofizialaren inguruan;
 - * Jendeak hautatutako izenari emandako esanahi nagusia edo ospea modu bidegabea aprobetxatzen dutenak; edo
 - * Interes publikoaren ikuspegitik, aipatutako domeinu-izenaren eduki potentziala oztopatzen dutenak, izenaren esanahi nagusia (hau da, deskribatzailea edo generikoa den) edota jendeak izenari emandako ospea kontuan izanda.
- d. Ez duzu zure .eus domeinu-izena hirugarrenen eskubideak urratzeko erabiliko, hirugarrenen jabetza intelektualeko eskubideak zentzu zabalenean barne hartuta baina horietara mugatu gabe.
- e. Ez duzu zure .eus domeinu-izena hirugarrenen independenteei hirugarren mailako domeinu-izenen erregistroa eskaintzeko erabiliko, erregistro komertzialeko zerbitzu gisa.
- f. Ez duzu zure .eus domeinu-izena eskatu gabeko publizitate komertziala bidaltzeko erabiliko, Interneteko lege aplikagarrien edo ohiko erabilera-politika onargarrien aurka.
- g. Ez duzu malwarerik zabalduko, botnetak modu iraugarriak operatuko, phishing egingo, lapurtuko, markarik edo copyrightik hautsiko, iruzurreko praktikarik gauzatuko, faltsutuko, edo aplikatutako legearen aurkako jarduerarik gauzatuko.
- h. Ez duzu zure .eus domeinu-izena beste domeinu-izen batzuk saltzeko, berriz saltzeko edo transferitzeko erabiliko. Are gehiago, ez diozu hirugarrenari hori lortzeko aukera emango edota borondatez lagunduko.
- h. Ez duzu zure .eus domeinu-izena .eus komunitatearen izena, irudia edo ospea kaltetuko duen edo ospea galaraziko dion moduan erabiliko.



4. Onarpen eskubideak gordetzea

4.1 Honako eskubide hauek gordetzen ditugu, gure nahierara:

- a. eskatutako edo erregistratutako .eus domeinu-izena ukatzea edo baliogabetzea, lehenago adierazitako 2. atalean azaldutako hautagarritasun-baldintzak urratzeagatik (adibidez, komunitatearekiko loturaren falta);
- b. .eus edozer domeinu-izenaren erregistroa etetea edota baliogabetzea, erregistranteak 2.1 xedapenean eskatutako .eus komunitatearekiko lotura galtzeagatik.

4.1 Xedapenearen mendeko zure .eus domeinu-izena emateko, ukatzeko edota eteteke gure erabakia 5.1 c xedapenean aipatutako .eus hautagarritasun eta birplanteatze gatazkak konpontzeko prozeduraren (HBEKP) bidez jarri daiteke zalantzan.

4.2 Guk eta gure akreditatutako erregistroek zure .eus domeinu-izenaren erregistroa ukatzeko, eteteke edota baliogabetzeko eskubidea gordetzen dugu, gure nahierara, honako kasu hauetan:

- a. Erregistro-politika hau jarraitu ezean, zure .eus domeinu-izena zuzenean edo zeharka 3. xedapenean azaldutako betebeharren aurka erabiltzea barne hartuta baina horretara mugatu gabe;
- b. Harremanetarako informazio okerra edo ez fidagarria ematen duzu nahita, edo ez duzu hori berehala eguneratzen nahita edo modu arduragabean;
- c. Ez diezu hamar (10) egunetan edo gehiagotan erantzuten erregistroa babesten duen saltzaileak edota guk zure domeinu-izenari lotutako harremanetarako informazioaren zehaztasunaren edo zure .eus domeinu-izenari lotutako beste edozer gertaeraren inguruko galderei erantzuten;
- d. Zuk edo hirugarrengo alderdiak legez kanpoko jarduerak gauzatzen ari zaretela dirudizue, zure .eus domeinu-izenaren erabileran;
- e. Zure domeinu-izena hirugarrengo eskubideak urratzen dituela edo urra ditzakeela dirudi;
- f. Gu edo gure akreditatutako erregistradoreak aplikatzen den edozer lege, aginpiderekiko, politika publikoarekiko edo hirugarrengoarekiko hitzarmena



haustea eragiten duen jokabidea hartu duzu; edota

- g. Legeak, auzitegiak edo beste aginpide eskudunak hala egitea eskatzen digu.

Erregistro-politika betetzen ez duzula edo datuak zehatzak ez direla erabakitzen badugu, harremanetan jarriko gara zurekin, egoera argitzeko/zuzentzeko. Ezarritako epean konpondu ezean (30 egun), zure .eus domeinu-izena beste hogeita hamar (30) egun etengo da. Betearazpen falta epe horretarako zuzendu ezean, zure .eus domeinu-izena baliogabetu egingo da. 4.2 Xedapenaren arabera zure .eus domeinu-izena eten edota baliogabetuz gero, badakizu erregistroaren kuotak ez zaizkizula itzuliko eta ados zaude horrekin.

4.2 Xedapenaren arabera, zure .eus domeinu izena eteteko edota baliogabetzeko gure erabakia zalantzan jarri dezakezu hautagarritasun eta birplanteatze gatazkak konpontzeko prozedura jarraituz («HBEKP»); hori hemen aurkitu daiteke: <http://domeinuak.eus/araudia>.

4.3 Halaber, erregistroak ukatu, indargabetu, egoeraz aldatu, bertan behera utzi eta/edo transferitzeko eskubidea ere izango dugu, honetarako beharrezkotzat jotzen badugu: (i) .eus erregistroaren ongizatea, segurtasuna eta egonkortasuna babestea; (ii) aplikagai diren legeak, gobernu-arauak edo -betebeharrak eta legea indarrean jartzeko eskaerak betetzea, eta gatazkak ebazteko prozesuekin bat etortzea; (iii) guk edo gure agente, funtzionario, zuzendari, ordezkari, langile eta akziodunek erantzukizun zibil nahiz kriminalak izan ditzatela eragozte.

4.4 Arau-urratzea epe horren barruan zuzentzen ez bada edo arau-urratzeari buruzko erreklamazio bat abian ez badago, zure .eus domeinu-izena epe luzeago batez indargabetu ahal izango dugu, edo bertan behera utzi ahal izango dugu. Zure .eus domeinu-izena artikuluan jasotakoaren ondorioz indargabetuta geratzen bada edo/eta bertan behera uzten bada, ez zaizu erregistratzearen dirua itzuliko.

4.5 Horrez gain, erregistroak ukatu, indargabetu, egoeraz aldatu, bertan behera utzi edo transferitzeko eskubidea izango dugu, baldin eta honetarako beharrezkotzat jotzen badugu:

- a) .eus erregistroaren ongizatea, segurtasuna eta egonkortasuna babestea.
- b) PuntuEUS Fundazioak edo bere agente, funtzionario, zuzendari, ordezkari, langile eta akziodunek erantzukizun zibil nahiz kriminalak izan ditzatela eragozte.



- c) Aplikagai diren lege eta araudiak betetzeko, eta sor litezkeen gatazkak ebazteko prozesuekin bat etortzea.
- d) Eskumena duen auzitegi batek emandako aginduak betetzea

5. Gatazkak konpontzeko politikei men egitea

5.1 Zure .eus domeinu-izenaren inguruko gatazka guztiak konpontzeko, ICANNen zein gure politika eta prozedura guztiei atxikitzea eta horiek betetzea onartzen duzu. Zehazki, hirugarrenengo edozer alderdi legitimok zure .eus domeinu-izenaren erregistroaren aurka aurkeztu ditzaketen auziak gatazkak konpontzeko hurrengo politiken mende jartzea onartzen duzu:

- a. Erreferentziaz erregistro-politika honetan sartutako ICANNek hartutako Domeinu izen uniformearen gatazkak konpontzeko politika. Hemen aurkitu daiteke: <http://www.icann.org/en/help/dndr/udrp/policy> («DIUP»). DIUP prozeduren bitartez, hirugarrenengo edozer alderdik zure .eus domeinu-izenaren aurka hasitako gatazka <http://www.icann.org/en/dndr/udrp/uniform-rules.htm> helbidean eskuragarri dauden arauak eta gatazka administratiboak konpontzeko hautatutako zerbitzu emailearen arau osagarriei jarraiki burutuko dira.
- b. ICANNek hartutako eta hurrengo helbidean eskura daitekeen etete uniforme azkarraren («EUA») politika eta EUA prozedura (<http://newgtlds.icann.org/en/applicants/urs>); bai eta ICANNek agindutako beste edozer gatazka-politika, jabetza intelektualaren jabeek hasitako aldarrikapenen ondoriozko domeinu-izenaren etete azkarreko prozesuak barne baina ez horietara mugatuta; eta
- c. .eus Hautagarritasun eta birplanteatze gatazkak konpontzeko prozedura («HBEKP»); horrek .eus domeinuan erregistratzeko hautagarritasunaren inguruko gure erabakia eztabaidatzeari buruzko baldintzak azaltzen ditu, eta hemen aurkitu daiteke: <http://domeinuak.eus/araudia>.

5.2 Badakizu eta onartzen duzu balitekeela erregistro-operadoreak zure .eus domeinu-izenaren erabilera lasaia eta etengabea bermatu ezin ahal izatea, hirugarrenengo legitimo batek arrakastaz eztabaidatuz gero, aurretik aipatutako gatazkak konpontzeko mekanismoetako baten bidez edo jurisdikzio eskudunaren zein bestelako aginpide publiko eskudunaren aginduaren bidez.



6. Harremanetarako informazioaren zehaztasuna

6.1 Erregistratutako domeinu-izenaren eskatutako informazio guztia ematea onartzen duzu, bai eta domeinu-izenaren erregistroari lotutako pertsonen edo erakundeen harremanetarako datu osoak, zehatzak eta fidagarriak ere, honako hauek barne:

- a. Izen-abizenak, helbidea, helbide elektronikoa, telefono zenbakia eta fax zenbakia (edukiz gero);
- b. Erregistratutako izenaren kontaktu teknikoaren izen osoa, helbidea, helbide elektronikoa, telefono zenbakia eta fax zenbakia (edukiz gero);
- c. Erregistratutako izenaren kontaktu administratiboaren izen-abizenak, helbidea, helbide elektronikoa, telefono zenbakia eta fax zenbakia (edukiz gero);
- d. Erregistratutako izenaren fakturazio-kontaktuaren izen-abizenak, helbidea, helbide elektronikoa, telefono zenbakia eta fax zenbakia (edukiz gero); eta
- e. Eskatutako beste edozer datu; kasu horretan, eskatutako ordezeko datuak aurretik aipatutakoak ordezkatzeko dituzte.

6.1 atal honetan aipatutako datu guztiak batera **«harremanetarako informazioa»** izango dira. Harremanetarako informazioa ematea nahitaezkoa da, domeinu-izena erregistratzeko.

6.2 Berehala zuzendu eta eguneratu beharko duzu Harremanetarako Informazioa, zure domeinu-izenaren erregistroa irauten duen aldian.

7. Datu pertsonalen babesa

7.1 Erregistradore babesleak (edo birsaltzaileak) biltzen du zure harremanetarako informazioa; horrek guri bidaliko digu eta guk prozesatuko dugu, zure .eus domeinu-izena erregistratzeko eta horren mantentze-lanetarako. Zehazki, zure harremanetarako informazioa honelakoa izango dela aitortzen duzu:

- a. Guk prozesatua, erregistro-zerbitzuak emateko, ICANNek eskatu bezala;
- b. Publikoki eskuragarria, Whois datu-base zerbitzuaren bidez; bertan,



Internetera sarbidea duen edonork kontsultatu dezake harremanetarako informazioa, bilaketaren bidez;

- c. Eragile gordetzaile ospetsua den NCCra bidalia, horrek gordetzeko, eta gordetako datuak osoak, kontsekuenteak eta formatu egokia dutela egiaztatzeko soilik, ICANNera bidali arte. Gordetze-hitzarmena argitaratuz gero, ICANNek edo horrek adierazitakoak .eus lehen mailako domeinuaren eragiketaren, mantentze-lanen edo trantsizioaren inguruko edozer erabilerarako baimen ez eskusiboa, ezeztazina, iraunkorra eta royaltirik gabekoa izango du.
- d. Halaber, zure harremanetarako informazioa ICANNi eman dakioke, horrek ikuskatzeko.

7.2 Ez dugu harremanetarako informazioa helburu horiekin bat ez datorren moduan. Arrazoizko neurriak hartuko ditugu harremanetarako informazioa galeratik, erabilera okerretik, baimenik gabeko sarbidetik edo ezagutaraztetik, aldaketatik edo suntsipenetik babesteko, bai eta lege aplikagarriak eskatutako beste edozer segurtasunezko neurri ere.

7.3 .eus domeinu-izena eskatzerakoan, zure harremanetarako informazioa prozesatzea onartzen duzu, xedapen honen arabera eta, zehazki, espresuki onartzen duzu zure harremanetarako informazioa erabiltzea, kopiatzea, banatzea, argitaratzea, aldatzea eta bestela prozesatzea eta transferitzea, aurretik zehaztutako helburuekin bat zein derrigorrezko tokiko datuen babeserako eta pribatutasuneko legeekin bat.

7.4 Eman diezagukezun hirugarrenko pertsonen datu pertsonalei dagokienez (zure erregistradorearen edo birsaltzailearen bidez), aipatutako hirugarrenko pertsonen euren datu pertsonalen helburuzko erabileren eta hartzaileen, horretara sartzeko eta, beharrezkoa izanez gero, guk euren inguruan ditugun datuak aldatzeko moduaren berri eman diezula adierazten eta bermatzen duzu. Halaber, hirugarrenko pertsona horiengandik euren datu pertsonalak prozesatzeko dagokion baimena lortu duzula adierazten eta bermatzen duzu.



8. Kalte-ordainak

Lege aplikagarriak baimendutako hein handienez, guztiz defendatuko, kalte ordainduko eta ez kaltegarritzat emango duzu erregistro-operadorea, edozer galeraren, erantzukizunaren, kalteren, kostuen edo gastuen aurrean, zure .eus domeinu-izenaren erregistroaren edota eragiketaren inguruan sortutako gatazkaren (3. xedapena hausteak eragindako gatazkak barne, baina horietara mugatu gabe) ondorioz, hirugarrenaren edozer erreklamazioaren, ekintzaren edota eskaeraren aurrean sortutako abokatuaren zentzuzko kuota barne.

9. Politikaren aldaketak

Erregistro-politika hau edozer unetan aldatzeko eskubidea gordetzen dugu. Berrikusitako erregistro-politika indarrean sartu baino hogeita hamar (30) egun natural lehenago argitaratuko dugu. Erregistro-politikaren bertsio hori politika honen mendeko kexaren edo gatazkaren aurkezpenaren ondorioz jadanik aipatu ezean (kasu horretan, aipatutako unean indarrean zegoen politikaren bertsioa aplikatuko zaizu gatazka amaitu arte), aldaketa horiek guztiak lotesleak izango zaizkizu, domeinu-izenaren edozer erregistro-gatazkari dagokionez, gatazka gure aldaketa indarrean sartu baino lehenago, bitartean edo ondoren sortu zen kontuan izan gabe. Erregistro-politikaren bertsioa aldatzearen aurka izanez gero, zure aukera bakarra zure .eus domeinu-izena baliogabetzea da, baldin eta erregistro-kuota bueltan jasotzeko eskubiderik ez baduzu. Berrikusitako erregistro-politika aplikatuko zaizu, zure domeinu-izenaren erregistroa baliogabetu arte.

10. Indarren dauden legeak eta jurisdikzioa

- 10.1 Erregistro-politika hau euskal, espainiar eta europar legeriaren menpe dago.
- 10.2 Politika hau interpretatzean edo gauzatzean sor litezkeen lege-gatazkak Donostiako auzitegi eskudunek ebatziko dituzte.



11. Hizkuntza

11.1 Erregistro-politika hau euskaraz eta ingelesez idatzi da.

11.2 Politika honetan jasotakoa interpretatzean zailtasunik sortuko balitz, euskarazko bertsioa hartuko dute aintzat bi aldeek.